

2012ko URTARRILEKO ESKUALDE BILERETAN ESKEINITAKO INFORMAZIOA

1. 2012-2013 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO KANPAINA

2012-2013 ikasturterako matrikulazio kanpaina urtarrilaren 30etik otsailaren 10era egingo da. Kanpainari dagokionez, honako jarduera hauek daude aurreikusita:

- EHIGERen publizitate kanpaina. Kartelak bidaliko dira ikastetxeetara, eta iragarkiak argitaratuko dira prentsan. Iazko ikasturtekoaren antzeko kanpaina izango da aurtengoa ere: karteletan, seme-alabak eskola publikoan matrikulatzeko zer arrazoi duten azalduko dute zenbait kide ospetsuk. Gipuzkoari dagokionez, Xabier Eguzkitze eta Birginia Imaz azalduko dira beren arrazoiak ematen.
- Azken urteetan bezala, Federazioak 60 euroko laguntza emango die tokiko hedabideetan kanpainaren publizitate pertsonalizatua egitea erabakitzen duten IGEei eta ikastetxeei; eta 30 euroko laguntza, berriz, herri edo eskualde bereko zenbait ikastetxek elkartuta kanpaina egitea erabakitzen duten IGE edo ikastetxeei.
- Eskualdekako banaketaren balizko aldaketari dagokionez, berrikuntza bakarra Beasainen planteatzen zen. Batzorde bat osatu da gai hori aztertzeko; batzorde horretan Murumendi eta Alkartasuna Lizeoko IGEetako ordezkariak parte hartzen dute eta erabakia momentuz zonifikazioa ez aldatzea izan da. Irunen ere DBHn planifikazio aldaketak planteatzen ari dira, baina matrikulazio kanpaina honetan ez dira aplikatuko.

2. ERLIJIOKO KLASEEI BURUZ EZTABAIDA

Matrikulazio kanpainarekin bat etorrita, EHIGEk antzeko beste ekimen bat bideratuko du, familiei seme-alabak Erlijioa irakasgai ez matrikulatzeko deia eginez. Horretarako idatzi bat prestatu du Guraso Elkarte eta eskolei bidaltzeko. Idatziaren izenburua *“Denontzako euskal eskola publiko laiko baten alde erlijioa eskola-ordutegitik kanpo”* da eta esaldi hauek azaltzen dira:

- Seme-alabak gurasoen sinismenetan hezteko eskubidea bermatzen dute legeek.
- Hala ere, eskotan betegarri bihurtu den Hezkuntzako Jarduera Antolatuak izeneko irakasgai eltertatiboa jasotzera derrigortzen ditu Erljio aukeratu ez dutenak, beste irakasgai batzuk jasotzeko aukerarik gabe.
- Ikastetxeetan eskola-ordutegiaren barnean eman behar sa derrigorrez Erljioa. Honen ondorioz, sinismenen arabera banatzen dira ikasleak eta astean 1 eta 2 ordu tartean galtzen dira beste irakasgai batzuk eman ordez.
- Bidezkoa al da gainontzeko irakasleen prozedura verdina (oposoletak, merituen lehiaketa...) egin ez duten irakasleek irakastea gure seme-alabei Erljioa eta beste ikasgai batzuk ?
- Guk nahi dugun kalitatezko Euskal Eskola Publikoa denontzako da eta berdintasuna eta zuzenrasuna defenditzen ditu hezkuntzako gai guztietan.
- Familia guztien sinismenak errespetatuz ella gehiengoaren eskaria kontuan hartuz (lehen hezkuntzako gurasoen %70 eta bigarren hezkuntzako %80ak ez du Erljioa aukeratzen)....
 - o Seme-alabak gure sinismenetan hezi nahi baditugu, bila ditzagun horretarako eginak dauden beste leku batzuk: eliza, sinagoga, meskita..
 - o Hala, ez ditugu derrigortu ikasbideak aukeratu ez duten ikasgai bat jasotzera, eta guztiak izango dute aukera curriculumeko gainontzeko ikasgaiak lantzeko ordu horietan (1, 1.5 edo ikasturtearen arabera), ikastetxearen proiektu edo froga diagnostikoen emaitzen arabera, esaterako.

Gai honi buruz informazio gehiago nahi izanez gero, EHIGEk web orri bat helbide honetan www.ehige.org/eskolalaikoa argitaratu du.

3. SARE PRIBATUKO KONZERTAZIOARI BURUZ EZTABAIDA

Abendu erdialdean Sare Privatuko konzertazioari buruz eztabaida bat sortu zen, Kristau Eskolako zuzendari Aitor Bilbaok Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldi ondoren. Itunpeko ikastetxe erlijiosoak ordezkatzeko dituen sareko zuzendari Aitor Bilbaok emandako informazioek oihartzun handia izan zuten hedabideetan, eta haien bidez adierazi zuen kostu ekonomikoetan alde handia dagoela itunpeko sarearen eta sare publikoaren artean; era berean, Legebiltzarrari eskatu zion neurriak har ditzala alde ekonomiko hori murrizteko, hau da, ituneko sarearen finantzaketa areagotzeko, betiere, itxura batean, sare publikoaren kalterako. Adierazpen horien larritasunaz jabetuta, EHIGEk agiria argitaratzea erabaki zuen (honi atxikita doa), hari erantzuteko eta aditzera emateko Aitor Bilbaok esandako horretan inola ere ez zela kontuan hartzen euskal hezkuntza sistemaren errealitatea. Hezkuntza Sailak ere prentsurrekoa egin zuen, Legebiltzarrean emandako datuei aurre egiteko. EHIGEn bileran gai horri buruz egindako eztabaidan, egokia iritzi zitzaion adierazpen horiei erantzuteari; baina, era berean, nabarmendu zen premiazkoa zela ikastetxe pribatuen itunen gaia berbideratzea, auzi nagusia ez baita funtsez itunen bidez sare pribatura zenbat diru bideratzen den, baizik eta bidezkoa ote den era horretako itunik egotea bera. Baina eztabaida sakona izanik, jendaurrean inolako proposamenik egin aurretik, komenigarria iritzi zitzaion gai hori sare publikoko masa sozialari planteatzeari, batez ere seme-alabak eskola publikoan matrikulatzeko erabakia hartzen duten familiei. Horrenbestez, eztabaidaren lehen urrats gisa, urtarrean argitaratuko den aldizkarian artikulua bat idaztea erabaki zen, eta artikulua horren bidez familiei gonbita egitea EHIGEn webgunean ekarpenak eta iritziak adieraz ditzaten, blogen bitartez.

4. MURRIZKETAK ERAKUNDE PUBLIKOKO AURREKONTUETAN.

Bolo-bolo dabil administrazioek gastuen aurrekontuetan ezarriko dituzten murrizketen auzia. Murrizketa horiek eragina izango dute, nola edo hala, irakaskuntza publikoan, eta, ondorioz, gurasoen elkarre mugimenduan. Administrazioekin gai honi buruz egin ditugun bileretatik honako informazio hau da nabarmentzekoa:

- **EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA:** 2012ko aurrekontua 2011koa baino %0,9 murriztagoa izango da. Horrek esan nahi du 26 milioi euro gutxiago izango direla. Zenbateko horri buruz, Hezkuntza Sailaren argudioa izan da Hezkuntza dela Eusko Jaurlaritzan murrizketa arinena jasango duen saila, murrizketa orokorra %5ekoa izango delako, eta irakaskuntzarekin zuzeneko loturarik ez duten jardueretan ezarriko delako gastuetan aurreikusitako murrizketa, jarduera osagarrietan, alegia. Oro har, partida hauetan izango dute eragina murrizketek:

- %10eko murrizketa elkarreentzako diru laguntzetan (IGEak eta federazioak barne).
- %20ko murrizketa, eskola jangeletarako ekarpenean; plaza kopuruari eutsiko zaionez, kuotak igoz orekatuko da murrizketa hori.
- 10 milioi euroko murrizketa, ikastetxeetan egin beharreko obretan; ikasleen eskolatzearekin lotura dutenak besterik ez dira gauzatuko, eta atzeratu egingo dira beste guztiak (jolastokiak estaltzea...), alde aurretik hitzartuta daudenak izan ezik. Behera egin du, halaber, ikastetxeetan obrak egiteko udalekin sinatzen den UDALAGUNTZA programaren zenbatekoa. Murrizketa hori proposatzeko argudioa da 2011n udalek proiektu gutxiago aurkeztu zituztela bide horretatik finantzatzeko.
- Testuliburuaren mailegu solidarioko programarako partida jaitsi egingo da; horrek pentsarazten digu 2012-2013 ikasturtetik aurrera seguru asko aldatu egingo direla programa horren baldintza ekonomikoak.
- %5 eta %8 arteko murrizketa, ordezkapenentarako diruan.

- Unean uneko beste gastu batzuk ezabatzea: uztailen DBH 4ko ikasleentzako ingeleseko barnetegiak, ikasmaterialak sortzeko EIMA programak...

Murrizketa horiek ikusita, EHIGEk alderdi politikoei eskatu zien Legebiltzarrean zuzenketak aurkez zitzatela 2012ko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua izapidetzean eta hura onartzeko epean, murrizketa horiek indarrean jarri ez zitezten; baina, zuzenketa batzuk aurkeztu arren, ez dira onartu, eta, horrenbestez, 2012an indarrean jarriko dira goian azaldutako murrizketa horiek.

Atal honetan, aipatzekoa da, halaber, Eusko Jaurlaritzak sektore publikoan egin nahi dituen murrizketak, nagusiki funtzionarioei eragingo dietenak: iazko soldata murrizketari eustea eta datorren urteko soldata izoztea, gaixotasun bajagatiko ordainsari osagarria bertan behera uztea, erretiro aurreratuagatiko primak ezabatzea... Neurri horiek Eusko Jaurlaritzaren funtzionario guztiei eragingo diete, eta sindikatuak horien kontrako protestak egiten ari dira: mobilizazioak iragarri dituzte, besteak beste lau orduko lanuztea, otsailaren 9an, irakaskuntza publikoko langile, Osakidetza, Ertzaintza eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileei begira.

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:** Diputazioak hezkuntzari buruz duen eskumen bakarra eskola kirolari dagokio. Atal horretan ere murrizketak aurreikusi dira, materialerako eta joan-etorrietarako ematen diren laguntzetan, hain zuzen. Joan-etorrietarako partida 175.000 eurotik 157.500 eurora jaitziko da. Nolanahi ere, Aldundiko Kiroletako zuzendari berriak, Asier Sarriegik, bilera batean jakinarazi zigun 2012. urtea trantsizioko urtea izango zela, kargu hartzetik denbora gutxi igaro denez ez duelako denborarik izan Gipuzkoan kirolaren funtzionamenduan ia aldaketarik egiteko. Adierazi zuenez, bere asmoa da etorkizunean eskola kirolari laguntza gehiago ematea, goi mailako kirolari ematen zaion diru kopurua murriztuta, seguru asko. Aldundiaren lehentasuna, hark esandakoaren arabera, oinarriko kirola sustatzea da, eskola kirola barne, eta ez, hainbeste, eliteko kirola. Igurikapen horiek ez dira 2013ra arte gauzatuko, nolanahi ere.
- **DONOSTIAKO UDALA:** Udalak ematen dituen diru laguntzetan %10eko murrizketa izango da, IGEen jarduerari ematen dizkion laguntzak barne direla. BAIKARArekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, 2012. urtean ehuneko bereko murrizketa egingo da. Gainera, hitzarmena indarrean sartu zela bost urte bete direnez, hitzarmen berriaren ezaugarriak negoziatu beharko ditugu 2012. urtean.

5. GURASO ELKARTEEN HEZKUNTZA JARDUERA ONEN 2.LEHIAKETA

Aurreko ikasturteko esperientziatik abiatuta, EHIGEk lehiaketaren bigarren edizioa antolatzea erabaki du, IGEen jardunbide egokien erakusgarri diren proiektuak ezagutzera emateko xedez. Gogoan izatekoa da aurreko ekitaldian protagonismo handia izan zuela Gipuzkoak, Gipuzkoako IGEek aurkeztutako proiektuek lortu baitzituzten lehen eta hirugarren sariak, bi aipamenez gainera. Saritutako esperientzia guztiei buruzko liburuxka bat argitaratu da, eta IGE guztiei bidali zaie. Bigarren ekitaldirako izena emateko epea 2012ko apirilaren 27an amaituko da; eta sari banaketa, berriz, Zarautzen egingo da, eskola publikoaren jaiaren egunean.

6. ESKOLA PUBLIKOAREN XXI. JAIA

Jakinarazi dugunez, jaiak 2012ko ekainaren 10ean egingo da, Zarautzen. Dagoeneko erabakita dago kartelaren behin betiko diseinua, eta salgai jartzeko materialak zehaztu eta ekoitzi beharko dira, orain. Jaiaren aurkezpen ofiziala egiteko prentsaurrekoa urtarrilaren 13an egin zen, Donostiako Koldo Mitxelena. Aurrerago beste prentsaurreko bat egingo da, Zarautzen, tokiko eta eskualdeko hedabideei begira. Bertan Orokieta ikastetxeko gurasoak sortutako abestia aurkeztuko da.

7. BESTE GAI BATZUK.

Wi-fi: Azaroaren 26an bilera bat egin zen, Laudion, ikasgeletan wi-fi sarea ezartzeari buruz jarduteko. 10 IGE elkartu diren, Arabakoak guztiak. Bilerarako deialdia Gipuzkoako IGEEi egin zietenean, hiru jarri ziren BAIKARArekin harremanetan, esanez ez zeukatela bilera hartara joaterik, baina bazutela haren ondorioen berri jasotzeko interesa. Beste IGE batek, bestalde, eskatu zigun gai honi buruzko inolako erabakirik hartu aurretik beste iritzi batzuk ere biltzeko, hain zuzen ere, instalazio horien arriskua zientifikoki frogatu gabe dagoela irizten dioten pertsona eta erakundeena. Honako informazio hau helarazi digute bilera horri buruz:

- Eskola Kontseiluan wi-fi/kablea eztabaida egitea eragotzi duten klaustroen jarrera salatu zen.
- Laudioko Lanteorro LHiko IGEa abokatu batekin harremanetan jarri da, eta abokatuak administrazioa nola jo behar duten azaldu die, formalismo guztiak nola bete, alegia. Txantilo bat aurkeztuko dute, auzi hau dela eta kezkatuta dauden familiek bete dezaten eta beren kezka Administrazioari behar den moduan aurkez diezaioten.
- Telefonía mugikorreko antenei buruzko epaiketa irabazi zuen Valladolideko abokatu batekin ere egin dira harremanak. Abokatu horrek azaldu duenez, Administrazioaren kontratu askok forma akatsa izaten dute, eta prest dago euskal administrazioarenak aztertzeko eta IGEEi aholkularitza emateko, lehenengo fasean, gai honen alderdi legala ardatz izango duen fasean.

Bileraren edukiaren berri eman zaie IGEEi, eta jakinarazi zaie gaiari buruzko interes berezirik izanez gero aukera dutela Arabako Denon Eskola Federazioarekin harremanetan jartzeko, hura baita EHIGERen baitan gai hau koordinatuko duena. Komentatu ere nola gai honi buruz erlazionatutako dauden hainbat erakundeek www.escuelasinwifi.org web orria martxan jarri dute.

Bizikidetzarako Hezkuntzaren aldeko konpromisoa: Abenduko 30ean Bilbon dokumentu hau aurkeztu zen. Hasierako zirriborroa Hezkuntza Sailak proposatu zuten, eta dokumentuari hainbat ekarpen eta aldaketak egin ondoren, behin betiko textua onartu zuten hezkuntzako eragile gehienak, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak ezik.